# 2015ERA LUZATUTAKO 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Egitaraua:** 62 AZPIEGITURA HIDRAULIKOA

# LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2014 PRORROGADO PARA 2015

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 62 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Edateko uraren hornikuntza eta Arabako Lurralde Historikoko hiriguneetako hondakin uren araztea bermatzea da programa honen helburua.

Bi xede horiei begira, programa honek aurreikusten du aldez aurreko azterlanak, proiektuak eta obrak egitea hainbat herrigunek hornidura eta saneamenduaren gaietan eskumena duten toki erakundeen eskaerei erantzuteko.

Hala, zehazki, lur azaleko urak nahiz lur azpiko urak aprobetxatzeko obren proiektuak idazten dira (erregulazio biltegiak, zundaketak, ponpatzeko estazioak, banaketa sareak…), bai eta hondakin urak tratatzeko estazio eta saneamendu kolektoreenak ere.

Diru sarrerak sortzen dira, orobat, hondakin urak tratatzeko zenbait araztegi elkarrekin ustiatu eta zaintzeko toki erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenen ondorioz.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

Programaturiko helburuak betetzeko, 4.492.339,16 euroko azken aurrekontua izan da. Kopuru horretatik, gai hidraulikoko jarduerak egiteko, 3.706.781,47 euro erabili dira.

Arabako Lurralde Historikoko herriguneetako ur arazketa bermatzeko helburuaren barruan, Samaniego eta Mañueta Eskuernagako HUArekin lotzeko obrak amaitu dira. Horrek 2015ean 1.665.226,23 euroko inbertsioa egin zuen.

Arabako Lurralde Historikoko herriguneetako ur hornikuntza hobetu eta bermatzeko helburua betetzearren, Zuiako hornikuntza berriztatu eta hobetzeko obrak amaitu ziren, 148.444,05 euroko zenbatekoaz, guztira; Urarteko biltegia eraiki zen, 246.596,22 euroko kostuaz; eta Berantevillako

### I. MEMORIA

El objeto de este programa es garantizar el abastecimiento de agua potable y la depuración de las aguas residuales de los núcleos urbanos del Territorio Histórico de Alava.

Para la consecución de este doble objetivo, el Programa prevé realizar estudios previos, proyectos y obras que atiendan las demandas de los entes locales competentes en materia de abastecimiento y saneamiento.

Así, en concreto, se redactan proyectos y obras encaminadas al aprovechamiento de las aguas superficiales o subterráneas (depósitos reguladores, sondeos, estaciones de bombeo, redes de distribución…), así como estaciones de tratamiento de aguas residuales y colectores de saneamiento.

También se generan ingresos procedentes de los convenios firmados con varias entidades locales para la explotación y mantenimiento conjunto de varias estaciones depuradoras de tratamiento de aguas residuales.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Para el cumplimiento de los objetivos programados se ha dispuesto de un presupuesto final de 4.492.339,16 euros, de los cuales se han destinado a actuaciones en materia hidráulica 3.706.781,47 euros.

Dentro del objetivo de asegurar la depuración de los núcleos del Territorio Histórico de Alava, se ha llevado a cabo la finalización de las obras de conexión de Samaniego y Baños de Ebro a la EDAR de Villabuena, lo que supuso una inversión en 2015 de 1.665.226,23 €.

En cumplimiento del objetivo de mejorar y garantizar el abastecimiento de los núcleos de población del Territorio Histórico de Alava, se finalizaron por un importe total de 148.444,05 € las obras de renovación y mejora del abastecimiento en alta de Zuia, , se construyó el nuevo depósito de Urarte con un coste de

hornikuntza hobetzeko bigarren urratsa gauzatu zen, 446.113,45 euroko gastuaz.

2015 urte horretan, Mendiolako eta Monasteriogurengo ur-hartzeetatiko hornikuntza hoditeria berriztatzeko obrak ere gauzatu ziren. Horrek 168.865,04 euroko inbertsioa ekarri zuen berekin.

2015 urtean Espejoko eskuin alderako kolektore berriaren eta, Amurrion, Lexartzuko biltegi berriaren obrak hasi ziren. Hurrenez hurren, 245.235,21 euro eta 171.289,34 euroko gastua egin zen. 2016an zehar, bi obra horiek amaituko direla aurreikusita dago.

Garrantzi txikiagoko beste jarduera batzuk egin ziren, hala nola Okarizen edateko uraren araztegi bat ezartzea, Sobrón Alto-ko hornikuntza hoditeria berriztatzea, Artxuako hornikuntza hobetzea, Kexaan punpategi berria instalatzea, Izarrako HUAren aurretratamendua hobetzea, eta Gopegiko eta Kuartangoko araztegiak hobetzea, horiek guztiak 262.546,92 euroko inbertsioarekin.

Alerta Gorriaren Urteko Planaren barruan jasotako beste ekintza batzuk ere burutu ziren. Honako hauek aipa daitezke, hornikuntzarik gabe geratzeko arrisku egoerak arintzeko zisterna-kamioien bidezko ur hornikuntzaz gainera: Navarrete eta Bergondako zundaketen konponketa, Escanzanako hornikuntzaren egokitzapena, Rivagudarako iragazketa baten instalazioa, edo Turisoko zundategian ponpa berri bat muntatzea. Ekintza horietarako eta garrantzi txikiagoko beste batzuetarako, guztira, 208.501,94 euro erabili ziren.

Eraikuntza obretarako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen Errege Dekretua betetzeko asmoz (1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa), aholkularitza teknikoa kontratatu zen obretan segurtasuna eta osasuna koordinatzearren; 17.879,73 euroko inbertsioa egin zen guztira.

Baita ere, laguntza tekniko topografikoa kontratatu zen, 20.117,46 euroko zenbatekoaz, eta 21.487,14 euroko inbertsioa egin zen, azpiegitura

246.596,22 €, y se ejecutó la segunda fase de la mejora del abastecimiento a Berantevilla con un gasto de 446.113,45 €.

En ese año 2015 se llevaron a cabo también las obras de renovación de la conducción de abastecimiento desde las capataciones de Mendiola y Monasterioguren, lo que supuso una inversión de 168.865,04 €.

Se iniciaron durante el año 2015 las obras del nuevo colector para la margen derecha de Espejo y el nuevo depósito de Lejarzo en Amurrio, llevándose a cabo un gasto de 245.235,21 € y 171.289,34 € respectivamente. Durante el año 2016 está previsto la finalización de estas dos obras.

Se llevaron a cabo otras actuaciones menores como la instalación de una estación de tratamiento de agua potable en Okariz, la renovación de conducción de abastecimiento para Sobrón Alto, la mejora del abastecimiento a Artxua, la instalación de un nuevo bombeo en Quejana, la mejora del pretratamiento de la EDAR de Izarra y la mejora de las estaciones depuradoras de Gopegi y Kuartango, todo ello con una inversión de 262.546,92 €.

También se llevaron a cabo otras actuaciones incluidas dentro del Plan Anual de Alerta Roja, pudiendo citarse además del suministro de agua mediante camiones cisterna para paliar las situaciones de riesgo de desabastecimiento,  la reparación de los sondeos de Navarrete y Berguenda, la adecuación del abastecimiento a Escanzana, la instalación de una filtración para Rivaguda o el montaje de una nueva bomba en el sondeo de Turiso, destinándose en total a estas y otras actuaciones menores 208.501,94 €.

Al objeto de dar cumplimiento al Real Decreto 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones minimas de seguridad y salud en las obras de construcción, se llevó a cabo la contratación de una asistencia técnica para la coordinación de seguridad y salud de las obras ejeuctadas, por un importe de 17.807,43 €.

Se contrató también una Asistencia Técnica Topográfica por un importe de 20.117,46 €, y se llevó a cabo una inversión de 21.487,14 € destinados a la adquisición de terrenos para infraestructuras

hidraulikoetarako lursailak eskuratzeko.

Hornikuntza eta Saneamendu Plan Zuzentzailea gertatzeko lanak hasi ziren, eta 2015 urtean guztira 65.272,72 euro ordaindu ziren. Aurreikusten da 2016an amaituko dela dokumentua gertatzen.

Era berean, “Aramaioko udalerriko lehen sareko hornikuntza sistemak hobetzeko azterlana” idazten hasi zen. Lanak 2016an amaituko direla aurreikusirik dago.

Baita ere, honako proiektu hauen idazketa-lanak egin ziren:

- *“Arabako Errioxa Lezako zundategitik urez hornitzeko sistema handitzeko proiektu eraldatua” (21.719,50 euro).*
- *“Santikurutze Kanpezun hornikuntzako kolektore-biltzailea berriztatzeko eta hartako euri urak baratze aldean sartzea galarazteko proiektua (Tartea: gasolindegia-ingurabideko zubia)” (11.979,0 euro).*
- *“Sobrongo hornikuntza sistemako hoditeria berriztatzeko eraikitze proiektua, tartea: A-4326 errepideko bidegurutzea – Sobrongo proiektuaren Bergondarako deribazioa” (21.538,0 euro).*
- *“Arabako Lukiano, Aperregi eta Gilierna herrietako estolderia eta hondakin uren saneamenduko proiektua” (18.150,0 euro).*
- *“Villanañeko hondakin urak, Gaubeako HUAn tratatzeko, Espejoko eskuin aldeko kolektorearekin lotzeko proiektua” (16.335,0 euro).*
- *“Leortza, Aletxa, Zekuiano eta Birgarako saneamendu alternatiben eta Maeztuko HUAra isurtzeko posibilitatearen inguruko azterlana" (11.132,0 euro).*

Gorbeiako ur-hartzeetatiko Amurrioko hornikuntza hobetzeko proiektuak eguneratu egin ziren. Horrek 8.470,0 euroko kostua sortu zuen. Orobat, ingurumen eraginaren hainbat azterlan egiteko enkargua egin zen, gaur egun indarrean dagoen ingurumen arautegia betetzeko helburuaz. Azken honetarako, 12.523,5 euroko inbertsioa egin zen.

hidráulicas.

Se iniciaron los trabajos de elaboración del Plan Director de Abastecimiento y Saneamiento, abonándose en el año 2015 un total de 65.272,72 €, estando previsto finalizar la elaboración del documento durante el año 2016.

Igualmente se comezó con la redacción del “*Estudio de mejora de los sistemas de abastecimiento en red primaria del municipio de Aramaio”*, previéndose finalizar los trabajos en 2016.

También se llevó a cabo la elaboración de los siguientes Proyectos:

- *“Proyecto modificado de ampliación del sistema de abastecimiento de agua de la Rioja Alavesa desde el sondeo de Leza”, (21.719,50 €)*
- *“Proyecto de renovación y elminación de entrada de aguas pluviales del colector-interceptor de saneamiento en zona de huertas (Tramo: gasolinera-puente de la circunvalación) en Santa Cruz de Campezo (Alava)”, (11.979,0 €)*
- *“Proyecto de construcción de renovación de conducción del sistema de abastecimiento Sobrón Tramo: Cruce carretera A-4326 – Derivación Berguenda Proyecto de Sobrón”(21.538,0 €)*
- *“Proyecto de saneamiento y depuración de aguas residuales de las localidades de Lukiano, Aperregi y Gillerna (Alava)” (18.150,0 €)*
- *“Proyecto de conexión de las aguas residuales de Villanañe al colector de la margen derecha de Espejo para su tratamiento en la EDAR de Valdegovía” (16.335,0 €)*
- *“Estudio de Alternativas de Saneamiento de Leorza, Aletxa, Cicujano y Vírgala y su posible vertido a la EDAR de Maeztu” (11.132,0 €)*

Se llevó a cabo la actualización de los proyectos de mejora del abastecimiento a Amurrio desde las captaciones del Gorbea, lo cual supuso un coste de 8.470,0 € y se encargó asimismo la elaboración de varios estudios de impacto ambiental al objeto de dar cumplimiento a la normativa ambiental vigente actualmente. Esto último conllevó una inversión de 12.523,5 €.

## 2015ERA LUZATUTAKO 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Egitaraua:** 62 AZPIEGITURA HIDRAULIKOA

2015ean, hobekuntzak eta eguneratzeak egin ziren Arabako Uraren Informazio Sistema (SIA Araba) aplikazio informatikoan. Inbertsioa, guztira, 21.773,95 euro izan zen.

Agurain, Dulantzi, Santikurutze Kanpezu, Izarra, Done Bikendi Harana, Maeztu, Bernedo eta Araiako herriguneetako araztegiak mantentzeko eta ustiatzeko hitzarmenaren esparruan, 236.827,80 euroko gastua egin zen, eta zenbait hobekuntza egin ziren instalazioetan. Besteak beste, aipa daitezke Maeztu, Kanpezu eta Izarrako araztegietan ponpak berritzea eta HUA horietan automatak instalatzea.

Orobat egin ziren Gaubeako EUTEaren mantentze-lanak, zeina 2012 urtean eraiki baitzen, eta jarraipena izan zuen ur-emaria neurtzeko estazioaren mantentze lanen kontratuak.

Araztegiak ustiatzeko hitzarmena dela eta, onartzen da 236.827,80 euroko diru sarrerak izan direla.

Ur Zerbitzuaren jardun hori osatuz, Zerbitzuko teknikoek aholku teknikoa eman diete toki erakunde eta partzuergoei ur hornidura eta saneamenduaren arloan dauzkaten eskumenak erabiltzen laguntzeko asmoz, besteak beste, ihesak hautemateko eta zalantza teknikoak argitzeko, gehien-gehienetan.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2014 PRORROGADO PARA 2015

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 62 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

Durante este año 2015 se llevaron a cabo mejoras y actualizaciones en la aplicación informática Sistema de Información del Agua en Alava (SIA Alava), con una inversión global de 21.773,95 €.

En el marco del convenio para el mantenimiento y explotación conjunto de las depuradoras de los núcleos de Salvatierra/Agurain, Alegria-Dulantzi, Santa Cruz de Campezo/Santikurutze Kanpezu, Izarra, San Vicente de Arana/Done Bikendi Arana, Maestu/Maeztu, Bernedo y Araia, se efectuó gasto por importe de 236.827,80 €, y se llevaron a cabo algunas mejoras en las instalaciones, citándose entre otras la renovación de bombas en las plantas depuradoras de Maeztu, Campezo e Izarra y la instalación de autómatas en estas mismas EDAR`s.

También se llevó a cabo el mantenimiento de la EDAR de Valdegovía, construida en el año 2012, y se continuó con el contrato de mantenimiento de las estaciones de aforos.

Respecto del Convenio de explotación de depuradoras, se han reconocido ingresos por importe de 236.827,80 euros.

La actuación del Servicio de Aguas se ha completado con la asistencia técnica proporcionada por parte de los técnicos del Servicio a los entes locales y consorcios al objeto de ayudarles en el desempeño de sus competencias en materia de abastecimiento y saneamiento, la cual se traduce habitualmente entre otras, en la colaboración en la búsqueda de fugas y resolución de dudas técnicas.